

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 150.000 euro zuzendu ditu Tokiko Agenda 21 planaren lanketa finantzatzeko tokiko erakundeentzako diru-laguntzen deialdirako

Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 14an bukatuko da

Astelehena, 2018.eko otsailak 12

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko Departamentuaren bitartez, 150.000 euro zuzendu ditu Tokiko Agenda 21 planaren lanketa finantzatzeko tokiko erakundeentzako diru-laguntzen deialdirako. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 13an hasiko da, asteartez, eta martxoaren 14an bukatuko da.

Hala jasotzen da Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia den Eva Garcíaren ebazpen batean, [gaur bertan argitaratu dena Nafarroako Aldizkari Ofizialean \(NAO\), astelehenez, otsailaren 12an](#). Ebazpen horren bitartez 100.000 eurotako gastua baimentzen da 2018rako, eta hasierako 50.000 eurotako 2019rako.

2018 eta 2019 ekitaldietan Tokiko Agenda 21 planaren lanketa sustatzea da laguntza horien helburua, tokiko mailan tokiko garapen jasagarria sustatzeko.

Diruz lagun daitezkeen ekintzek honako baldintzak bete beharko dituzte: Tokiko Agenda 21 planaren lanketaren barruan kokatzea; agendaren lanketa osoa izatea; eta, hirugarren, tokiko erakunderen batek garatzea: udala, zerbitzuen mankomunitateak edo erakundeen elkarteak.

Onartutako aurrekontuaren %70a lagunduko da diruz gehienez proiektu bakoitzean, eta oinarrietan ezarritako irizpideen arabera emango da, eskuragarri dagoen aurrekontua agortu arte. Agenda lantzeko elkartutako erakundeei edo erakunde-multzoei, elkartuta 15.000 biztanle edo 150 km² baino gehiagoko azalera izanez gero, 8.000 eurotako diru-laguntza maximoa emango zaie 2018an, eta 4.000 eurotako 2019an.

Agenda lantzeko elkartutako gainerako erakunde edo erakunde-multzoei 7.000 eurotako diru-laguntza maximoa emango zaie 2018an, eta 3.500 eurotako 2019an. Aurrekonturik erabilgarri ez badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuz joango da urtero, proportzionalki.

Eskabideak Jasangarritasuna, Ingurumen Heziketa eta Partaidetza Publikoko sailera zuzenduko dira, eta Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko Departamentuko Erregistroan aurkeztu beharko dira (González Tablas kalea 9, Iruña). Gainera, Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoan ere aurkeztu ahal

izango dira, edo [Legean](#) aurreikusitako lekuetan.

Tokiko Agenda 21

Udalerrri bateko (edo udalerrien elkartze bateko) planifikazio estrategikorako prozesua da Tokiko Agenda 21, bertako garapena jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekora bideratu nahi duena, eta zeinaren helburuak udal-aginpideen eta tokiko biztanleen arteko akordioaren bitartez definitzen diren.

Foru Komunitateko tokiko erakundeen parte handienak badauka jada planifikaziorako instrumentu hau, eta, kalkuluen arabera, Nafarroako biztanleria osoaren %87a ordezkatzeko duela estimatzen da.

Nazio Batuek Ingurumenari eta Garapenari buruz egindako hitzaldian edo Lurraren Goi-bilera deitutakoan dauka jatorria Agendak, 1992. urtean ospatu zena Rio de Janeiron. Hiri Jasangarriari buruzko Europako I. Konferentzian garatu da (Aalborg, Danimarka, 1994), "Iraunkortasunaren aldeko Europako Hirien Gutunaren" sinatzearekin eta Aalborg-eko Konpromisoak deitu direnekin (2004), zeinen artean honakoak dauden: gobernu-moduak, jasangarritasunaren udal-kudeaketa, natura-baliabide komunak, kontsumoa eta bizi-eredu arduratsuak, hirigintza-plangintza eta -diseinua, mugikortasun hobea eta trafikoaren gutxitzea, osasunerako tokiko jarduna, tokiko ekonomia bizi eta jasangarria, berdintasuna eta gizarte-justizia eta, azkenik, tokiko esparrua eta esparru globala.